


Mugikortasun seguru eta jasangarriaren unitate didaktikoa

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa

Haurren hiria



**PERTSONA
HELBURU**

**COMPROMISO CON
LAS PERSONAS**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Tráfico Zuzendaritza


DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

Aurkezpena

Ezer baino lehen, eskerrik asko ikasmaterial hau erabiltzeagatik. Espero dugu baliagarria izatea ikasleak bide-segurtasuneko gaietan hezteko.

Irakasle zaren aldetik, funtsezkoa da zure ekarpena baterako lan pedagogikoan, ikasle belaunaldiak gure kaleen eta errepedeen bide-segurtasuneko eta bide-segurtasunaren balioetako, eskubideetako eta betebeharretakoko hezkuntza jasotzeko. Hala, aldi berean, ohitura seguru eta arduratsuak eskuratuko dituzte, oinezko, garraio publikoaren erabiltzaile, ibilgailu pribatuetako bidaiari eta txirrindulari hasiberri diren aldetik.

Beharrezkoa da haurren artean talde-kontzientzia sustatzea eta txikienek mugikortasunari buruz gogoeta egitea, oinezko, txirrindulari eta garraio publikoaren erabiltzaile diren aldetik. Zalantzarik gabe, oinarrizko prestakuntza hori funtsezkoa izango da gure herrietan eta hirietan mugikortasun seguru eta jasangarria sustatu eta sendotzeko.



Gure ardura politikoentzat eta administratiboentzat laguntza handia da zuen ekarpen pedagogikoa, bai istripuak ekiditeari dagokionez, bai istripu-tasak murrizteari dagokionez. Bitarteko naturala eta garrantzitsua zarete belaunaldi berriak kaleak eta espaloiak, autobideak eta errepedeak, bidegorriak, garraibide publikoak edo pribatuak, banakakoak edo kolektiboak, partekatzen ditugun erabiltzaileen arteko begirunean hezi, eta egungo zein etorkizuneko mugikortasuna seguruagoa, adeitsuagoa eta arduratsuagoa izan dadin.

Lehen nahiz Bigarren Hezkuntzan irakatsiko dituzuen Segurtasun Sailaren Trafiko Zuzendaritzak atondutako hezkuntza-unitate hauek baliagarriak izango zaizkizuelakoan nago, egunez eguneko lan pedagogikoan laguntza praktikoa izateko sortu direnez.

Eskerrak ematen dizkizuet lan pedagogiko horregatik.

Estefanía Beltrán de Heredia Arróniz

Segurtasuneko sailburua

Sarrera

Programazio honetan, trafikoaren gehikuntzari eta gure herrietan auto-mobileren eremu publikoak inbaditzeari buruzko gogoeta egin nahi da.

Jardueren multzoak hazi bat landatzea proposatzen du, belaunaldi berriek hirien antolamendua lehengora dezaten, oinezko haurren alde, bizikleten alde eta garraiobide publikoen alde.



Programazioa jardueretan egituratuta dago. Honelako fitxetan jaso dira jarduerak:

Izenburua:

Jardueraren izenburua

- Eskola curriculumeko arloak: atal honetan adierazten dira estuen loturiko eskola curriculumeko arloak.
- Agenda 21eko gaiak: jarduera honetan landu diren Agenda 21eko gaiak adierazten dira.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak argitaratu duen Mugikortasun segururako hezkuntza. Gaitasunen gida liburu gaitasuna adierazten da.

Helburuak:

✓ Jardueraren helburu pedagogikoak.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Proposatutako jarduera egoki gauzatzeko behar diren informazio eta kontzeptuak zehazten eta azaltzen dira hemen.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Proposatutako jarduera nola egin, hezitzailearentzako jarraibideak emanda.

Eranskinak:

Jarduera egiteko behar diren dokumentuak.
Batzuetan, Trafiko Zuzendaritzako Baliabideen Katalogora daramaten estekak dira eranskinak.

Emaitza:

Dokumentuak, jardueran egindako materialak, eta azken ondorioak.

**Argibide eta
baliabide gehiago:**

Jarduerari eta haren edukiari lotutako bibliografia, interesa duten estekak edota dokumentuak.

Aurkibidea

SENTIBERATZEA 06

1. Hiru amaiera dituen ipuina 06
Eranskina: Hiru amaiera dituen ipuina

DIAGNOSTIKOA 09

1. Elkarrizketa 09
Eranskina: Elkarrizketaren gidoia
Eranskina: Datu taula
2. Nola iritsi eskolara 12
3. Eskolako sarrera 14
Eranskina: Behaketa fitxa
4. Diagnostikoaren ondorioen kartela 17

EKINTZA PLANA 19

1. Garraioaren gurpila 19
Eranskina: Garraioaren gurpila
2. Garraioa: airea eta zarata 21
3. Egin dezagun txango bat 24
4. Autoa partekatzea (car sharing) 26
Eranskina: Argibideen txantiloia
5. Eskolara iristea 29
6. Etxetik eskolara, zarata dut lagun 31
7. Eguraldia eta gu 34
8. Adituen lantegia 36

EBALUAZIOA 37

1. Kartelak eta horma-irudiak 37
2. Trukea 39

ERANSKINAK 40

SENTIBERATZEA

1. Hiru amaiera dituen ipuina

Izenburua:

Hiru amaiera dituen ipuina

- Eskola curriculumeko arloak: Hizkuntzak.
- Agenda 21eko gaiak: Lurraldearen antolamendu jasangarria - Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

- ✓ Gogoeta egitea, ibilgailu pribatuek eremu publikoa inbaditu dutela eta.
- ✓ Eztabaida, joan-etorriak egiteko beharraz, nork bere ibilgailua izateko beharraz, eta eremu publikoa beste jarduera batzuekin partekatu beharraz.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Haurrak gehien-gehienbat hirietan bizi dira. Hori aski arrazoi izan beharko litzateke hirietan haientzat eremu bat gordetzeko; baina badakigu eremu publikoaren banaketan eta erabileretan ez direla haurrak kontuan hartzen.

Francesco Tonuccik nabarmendu duenez, «espaloiek, kaleek eta plazek, gero eta areago, automobilari eta salerosketari lotutako funtzioak hartu dituzte, herritarrei kenduta. Hiriak uko egin dio eremu partekatu eta sistemikoa izateari».

Zenbait proiektuk, hiri inguruneak hobetzarren eta haurrentzat egokiago bihurtzarren, hiria haurren ikuspegitik pentsatzea proposatzen dute. Proiektu horien asmoa da eremu jasangarri eta seguruak berreskuratzea oinezkoentzat, jolasteko; bide segurtasuna handitzea; eta hirien kalitatea hobetzea, auto pilaketak, kutsadura, istripu arriskua eta abar urrituta.

SENTIBERATZEA

1. Hiru amaiera dituen ipuina

Nola egin:

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Hezitzaileak ozenki irakurriko du ipuina ikasgelan, hiru amaierak irakurri gabe. Gero, ikasleek aukerako hiru bukaerak irakurriko dituzte: hiruretatik gustukoen aukeratuko dute, eta aukeraren zergatia azalduko dute.

Guztien artean, ipuinari buruz duten iritziaz emango dute, eta xehetasunez berba egingo dute ea eurengan zer eragin duen hainbeste ibilgailu duen ingurune batean bizitzeak.

Hezitzaileak gogoeta egitera bultzatuko ditu, galderak eginez. Ikasleek talde txikian erantzun dezakete, eta

gero erantzunak ikastalde osoari azaldu:

- *Zer iruditu zaizue ipuina?*
- *Uste duzue zuen hiriak baduela ipuinekoaren antza?*
- *Nolakoa litzateke hiria, zuek horretaz erabaki ahal izango bazenute?*
- *Hainbeste ibilgailu izango al lirateke?*
- *Nola joango zinateke toki batetik bestera?*
- *Zuen ustez nolakoa litzateke zuen hiria, automobilik gabe?*

Eranskinak:

- *Gianni Rodariren ipuina: Txirularia eta automobilak.*

SENTIBERATZEA

1. Hiru amaiera dituen ipuina

Emaiza:

Azken emaitza ondorio batzuk dira:

- Hurrei helduen laguntzarik gabe ibiltzeko aukera ematen dien hiria da hiri ona.
- Eremu publikoak gehienbat oinezkoentzat jarrita dituen da hiri ona.
- Jolasteko eremuak dituen da hiri ona.
- Kerik, zaratarik, zaborrik... gabekoa da hiri ona.
- Espaloian zehar ibilaldi atsegina egiteko aukera ematen duena da hiri ona.
- ...

Argibide eta baliabide gehiago:

Haurren hiriarri buruzko informazio gehiago:

- <http://www.lacittadeibambini.org/spagnolo/interna.htm>
- <http://ciudadesamigas.org/>
- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

DIAGNOSTIKOA

1. Elkarrizketa

Izenburua:

Elkarrizketa

- Eskola curriculumeko arloak: Hizkuntzak. Matematika. Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezaguera.
- Agenda 21eko gaiak: Eskola eta herria - Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia - Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

- ✓ Elkarrizketa bat egitea, etxetik eskolara etortzeko erabiltzen dugun mugibideari buruz.
- ✓ Etxetik eskolara egiten ditugun bidaiak aztertzea, grafikoak eginez.
- ✓ Mugibide bakoitzaren abantaila eta desabantailak identifikatzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Ekologistak Martxan erakundeak dioenez, ingurune fisiko batean egiten diren pertsona eta salgaien joan-etorrien multzoa da mugikortasuna. Hiriko mugikortasunaz mintzatzen garenean, hiriko joan-etorri guztiez ari gara.

Joan-etorri horiek hainbat garraiobide edo garraio sistema erabiliz egiten dira: autoz, garraio publikoan, oinez, bizikletaz eta abar.

Kontzeptu hori hobeto ulertzeko, proposatzen dugu etxetik eskolara egindako bidaiak aztertzea, ikasleek egunero egiten dutelako lekualdatze hori. Gainera, elkarrizketa egingo dugu, familiakoentzako edota etxetik eskolara laguntzen digutenentzako galdeketa baten bidez.

DIAGNOSTIKOA

1. Elkarrizketa

Nola egin:

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Ikasle bakoitzak elkarrizketa bat egingo die (eredu bat doa eranskinean), elkarrekin, etxetik eskolarako bidean lagun izaten ditueni (ama, aita, aitona, amona eta abar). Ikasleak erantzunak idatziko ditu, eta bere iritzia ere emango du.

Ikasgelara etorrita, erantzunak konparatuko dituzte: lehenik talde txikietan, gero guztien artean.

Hezitzaileak taula bat egingo du, arbelean edo panel batean, datu nagusiekin, eta ikasleei ondorioak proposatuko dizkie (honekin batera doa, adibide gisa, egin daitezkeen galdera eta ondorio batzuk dauzkan taula bat).

Datuen eta ondorioen iruzkina egin eta gero, talde txiki bakoitzak informazio bat hautatuko du, eta grafiko bat edo gehiago sortuko du, DIN A 3 karteletan edo paneletan. Adibidez, barra-diagrama bat egin dezakete, garraibide bakoitza zenbat erabiltzen den (eskolara

etortzeko zenbat ikaslek erabiltzen duten).

Hezitzaileak ikasleekin ondorioak landuko ditu, galdera hauek eginda:

- *Jasangarritasunari dagokionez, uste duzu zure joan-etorriek ingurumen arazoak sortzen dituztela? Baiezkoan, zein arazo?*
- *Seguruak al dira zure joan-etorriak? Zein da eskolara etortzeko garraibiderik seguruenena?*
- *Etxetik eskolara egiten ditugun bidaiak aztertuta, proposamenik egin dezakegu hobetzeko? Zer ekintza bururatzeko zaizkizu, ingurumen eta segurtasun arazoak txikiagotzeko edo erabat kentzeko?*

Ikasleek zerrenda bat egingo dute, hobekuntzen eta ekintzen proposamenekin. Berdin dio bideragarriak diruditen edo ez.

Eranskinak:

- *Elkarrizketaren gidoia.*
- *Datu taula.*

DIAGNOSTIKOA

1. Elkarrizketa

Emitza:

- Ikasgela bakoitzeko konparazio taula.
- Azken ondorioak:

Ikasle gehienak eskolara autoz etortzen badira, horrek ingurumeneko eta bide segurtasuneko arazoak dakartza:

- Airearen kutsadura (atmosfera), CO2 isurpenarengatik.

- Zaratazko kutsadura (akustikoa).
- Autoek eremu publikoa inbaditzea.
- Oinezkoak harrapatzea eta bestelako trafiko istripuak.
- Auto ilarak: larrialdiko zerbitzuen zirkulazioa oztopatzen dute.

Argibide eta baliabide gehiago:

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

DIAGNOSTIKOA

2. Nola iritsi eskolara

Izenburua:

Nola iritsi eskolara

- Eskola curriculumeko arloak: Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezaguera.
- Agenda 21eko gaiak: Eskola eta herria - Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Egokitzapena eta malgutasuna.

Helburuak:

- ✓ Etxetik eskolara egiten ditugun bidaietarako aukerak aztertzea.
- ✓ Ikerketa teknikak erabiltzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Eskolako bidea da ikasleek eskolara eta eskolatik etxera oinez egiten duten ibilbidea. Eskolako bidearen proiektuak ibilbidea laguntzen du, haurren autonomia sustatuta.

Proiektuan parte hartzen dute, oro har, auzoak, dendariak, polizia, ikastetxeak eta bidean dauden gainerako gizartekotze-eragileak.

Jarduera honetan, ikasle bakoitzak pentsatzen du bere joan-etorrietako ohiturak aldatzea, eta aukera segurua-go eta jasangarriagoak bilatzen ditu, bereziki eskolara ibilgailu pribatuan etortzeko ohitura baldin badu.

DIAGNOSTIKOA

2. Nola iritsi eskolara

Nola egin:

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Ikasle bakoitzak ikertuko du nola iritsi eskolara beste garraio bide bat erabiliz. Esaterako, autoan etorri ohi bada, pentsa dezala autobusean etortzea (ibilbidearen zati batean bada ere). Ikasleren batzuk oso hurbil bizi baldin badira, elkarrekin lan egin dezakete, talde txikian bada ere. Auzoen edo kaleen arabera ere bana daitezke ikasleak.

Ikerketa hori egiteko, etxean galdetu beharko dute, ibilbide horretan lagun dituztenei bereziki. Ikasgelan krokis bat egingo dute; krokisean adieraziko dituzte eskola, etxea eta garrantzizko elementu batzuk

(seinaleak, biribilguneak edota ekipamendu ezagunak, hala nola plaza bat, banketxe bat eta abar) eta beren ohiko ibilbidea. Orobat, herriko mapa bat erabil dezakete.

Krokis edo mapa horretan markatuko dugu, halaber, ea garraio publikorik baden; eskolaren inguruko garraio publikoak eta hurbileko geralekuak adieraziko ditugu.

Krokisa marraztutakoan, ikasleek bestelako kolore deigarri bat hautatuko dute, beren ohiko ibilbidea eta ordezko ibilbide posible bat markatzeko.

Eranskinak:

--

Eraitza:

Joan-etorrietarako aukerak erakusten dituen krokisa edo mapa.

Argibide eta baliabide gehiago:

Eskola dagoen hiriko edo auzoko mapa.

- [Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa](#).

DIAGNOSTIKOA

3. Eskolako sarrera

Izenburua:

Eskolako sarrera

- Eskola curriculumeko arloak: Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezaguera.
- Agenda 21eko gaiak: Eskola eta herria - Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia - Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

- ✓ Eskolako sarrera behatzea.
- ✓ Joan-etorrietarako ditugun ohiturez hausnartzea.
- ✓ Eskolako sarreran nabari diren segurtasun eta jasangarritasun arazoak aztertzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Joan-etorrietan ditugun ohiturei behatzeko toki ona da. Harrapatutako oinezkoak trafikoen estatistiketako parte garrantzitsu eta kezagarri bat dira. Eusko Jaurlaritzaren 2012ko Trafikoko Txosten Monografikoan jaso denez:

- Euskadin trafiko istripuetan hildako 100 lagunetik 19 oinezkoak dira, ibilian edota kaleak nahiz errepideak

zeharkatzean.

- 2012an, 11 oinezko hil ziren, eta 90 larri zauritu ziren.
- Automobilerik harrapatuta hildakoen ia erdiak kalea edo bidea behar ez bezala erabiltzen edo zeharkatzen ari ziren.

Premiazkoa da oinezkoen ohitura eta jokabideen gainean jardutea, harrapa ez ditzaten.

DIAGNOSTIKOA

3. Eskolako sarrera

Nola egin:

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Talde txikietan (2 edo 3 ikaslekoak) behaketa egingo dugu eskolako sarreran. Ikasleei eskatuko diegu ohi baino minutu batzuk lehenago etor daitezela, eta datuak jaso ditzatela behaketa fitxan (eranskinean doa behaketa fitxa).

Fitxak zati bi ditu: bata jasangarritasunari dagokio; bestea, mugikortasun seguruari.

Ikasgelan, taldeen behaketaren emaitzen iruzkina egingo dugu, eta ondorengo ariketa hauetako batzuk gauzatuko:

MUGIKORTASUN SEGURUA:

- *Zer iruditu zaizue eskolako sarrera? Une lasaia ala zalaparta handikoa da?*

Simula ezazue, ikasgelan, nolakoa izan ohi den eskolara sartzea, eta nolakoa izango litzatekeen lasai egingo balitz.

- *Zer iruditu zaizue autoetatik jaisteko modua, segurua*

ala ez-segurua?

Simula ezazue, lau aulkirekin, nola jaitsi behar dugun autotik.

MUGIKORTASUN JASANGARRIA:

- *Kalkula ezazu zenbat auto heldu ziren eskolako sarrera ikasleekin, eta biderkatu auto bakoitzaren CO2 isurpenen kopuruarekin. Zenbat CO2 isuri dugu atmosferara, eskolara etortzeko?*

- *Eta zenbat ikaslek partekatu dute autoa?*
- *Zure ikasgelan autoz heldu zirenak kenduta, zenbat iritsi ziren oinez?*

Bildutako datuak karteletan laburbil daitezke.

DIAGNOSTIKOA

3. Eskolako sarrera

Eranskinak:

- *Behaketa fitxa.*

Emaitza:

Joan-etorriei buruzko datuak, eskolako sarreran bilduak. Gero, ondorioen ariketetan eta ebaluazio karteletan erabili ahalko dira.

**Argibide eta
baliabide gehiago:**

- *Trafiko txosten monografikoa. Bigarrena: Oinezkoen istripuak Euskadiko errepide eta kaleetan. 2013.*
- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

DIAGNOSTIKOA

4. Diagnostikoaren ondorioen kartela

Izenburua:

Diagnostikoaren ondorioen kartela

- Eskola curriculumeko arloak: Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezaguera - Arte hezkuntza.
- Agenda 21eko gaiak: Eskola eta herria - Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia - Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

- ✓ Joan-etorri jasangarriago, seguruago eta osasungarriagoak egiteko proposamenak biltzea.
- ✓ Premiazkoentzat eta bideragarrientzat jotzen diren proposamenei lehentasuna ematea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Diagnostikoa itxi eta laburbiltzeko jarduera bat da. Parte-hartzearen metodologia proposatzen dugu; horregatik, jarduera honetan elkarrekin ekintza zerranda bat sortuko da, eta ekintzen arteko lehentasunak ezartzeko

ACTIVIDADES PARA LOS/LAS ESTUDIANTES:

Aurreko jardueretako arazoak, grafikoetan landutako datuak eta identifikatutako proposamenen zerrendak aintzat hartuta, ikasleek, talde txikietan banatuta, kartoi meheetan edo paper itsasgarrietan jasoko dituzte jasangarritasun, segurtasun eta osasun handiena dakarten proposamenak.

bozkatuko da. Bozkatzeko eta lehentasunak ezartzeko sistemak inplikazioa eta nolabaiteko eginbidea eskatzen dizkio ikasle bakoitzari.

Talde bakoitzak bere proposamenak poster batean, DIN A3 kartel batean edo arbelean itsatsiko ditu, eta labor azalduko ditu. Behin proposamen guztien iruzkina egindakoan, errepikatutakoak edo oso antzekoak taldekatuko dira.

DIAGNOSTIKOA

4. Diagnostikoaren ondorioen kartela

Nola egin:

Segundo batzuek gogoeta egin eta gero, ikasle bakoi-tza errotulagailu edo eranskailu batekin hurbilduko da kartelera, eta marra batez markatuko ditu premiazko eta bideragarrientzat jotzen dituen bi proposamenak (hau da, berehala abian jarri ditzakegunak).

Bukatu dutenean, hezitzaileak zenbaketa egingo du, eta boto gehien bildu duten hiru edo lau proposamenak nabarmenduko ditu.

Eranskinak:

--

Emaitza:

Laburpen kartela, hobetzeko proposamenak eta lehentasunak jasotzen dituenak.

Argibide eta baliabide gehiago:

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

1. Garraioaren gurpila

Izenburua:

Garraioaren gurpila

- Eskola curriculumeko arloak: Hizkuntzak.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia - Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

- ✓ Garraibideen ikuspegi orokorra lortzea.
- ✓ Garraibide bakoitzaren ezaugarri nagusiak identifikatzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Garraibideen ezaugarriek informazio asko ematen dituzte gure joan-etorrien jasangarritasunari eta segurtasunari buruz. Garrantzitsua da garraibide bakoitza bere ezaugarriekin behar bezala erlazionatzea.

sunari buruz. Garrantzitsua da garraibide bakoitza bere ezaugarriekin behar bezala erlazionatzea.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Ezagutzen dituzten garraibideei eta haietako bakoitzaren baliagarritasunari buruzko ideia jaso egitea proposatzen da. Hezitzaileak mapa kontzeptuala egin dezake arbelean.

joan-etorrietarako erabiltzen baldin badute), eta gurpil batean marraztuko ditugu, eranskinean azaldutakoaren antzera.

Garraibideak identifikatutakoan, erabilienak hautatuko ditugu (adibidez, merezi du patinetea sartzea, egiaz

Banaka edo bikoteka, eranskineko adjektibo taula osatuko dute. Garraibideei lot dakizkiekeen antonimoak eta beste adjektibo edo ezaugarri batzuk gehituko dituzte.

EKINTZA PLANA

1. Garraioaren gurpila

Nola egin:

Adjektibo taula osatutakoan, hitzak ebakiko dituzte, eta gurpilean itsatsiko, garraiobide bakoitzari beren ustez dagokion eran.

Itsatsitakoan, beste hitz batzuk egin ditzakete edo aurrekoetako batzuk berriz egin ditzakete, garraiobide

bakoitzaren ezaugarriak osatzeko.

Ikastalde osoan iruzkina egingo da, eta egindako garraio gurpilen arteko ezberdintasunak nahiz zalantzak eztabaidatuko dira.

Eranskinak:

- *Garraioaren gurpila.*

Emaitza:

Garraiobide bakoitzerako adjektiboak dakartzan garraio gurpila.

Argibide eta baliabide gehiago:

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

2. Garraioa: airea eta zarata

Izenburua:

Garraioa: airea eta zarata

- Eskola curriculumeko arloak: Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezaguera.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria - Hots eta aire kutsadura.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

Helburuak:

- ✓ Hots eta aire kutsaduraren alderdi nabarmenenak aztertzea.
- ✓ Automobilaren erabilera nola gutxitu daitekeen hausnartzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Euskal Autonomia Erkidegoan, kutsadura handia izan da hainbat urtez, zenbait eremutan industria eta biztanleak kontzentratu zirelako. Izan ere, horrek berekin dakar isurpen handiak izatea, berokuntzak edota ibilgailu motordunen trafikoak sortuak.

Askotan, ez dakigu zer erlazio dagoen garraiobide jakin batzuen eta airea zikinduz nahiz hotsa eginez kutsatze-ko duten ahalmenaren artean. Egia da autobus batek gehiago kutsatzen duela auto batek baino; hala ere, askoz jende gehiago garraiatzen duenez, bidaiari bakoitzeko isurpen gutxiago du autobusak, egiaz.

Aire kutsaduraren ondorioak hauek dira, besteak beste:

- Odolari oxigenoa garraiatzeko gaitasuna urritzen dio. Beraz, ondorio kaltegarriak ditu sistema kardiobaskularran eta jokabidean.
- Muki-mintzak narritatzen ditu, eta arnas arazoak sor ditzake (berotegi efektuak larritzen dituen arazoak).

Hots kutsaduraren ondorioak hauek dira, besteak beste:

- Ondorio fisiologikoak (entzumena hondatzea).
- Ondorio psikologikoak (suminkortasuna, komunikazioko interferentziak, eta atsedean hartzeko nahiz lo hartzeko arazoak).

EKINTZA PLANA

2. Garraioa: airea eta zarata

Nola egin:

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Talde txikietan, ondorengo galderei erantzungo diete. Behar izanez gero, Internet edo beste informazio iturri batzuk kontsultatu ahalko dituzte.

- *Ibilgailuek isuritako keak airea kutsatzen du. Zure ustez, zerk kutsatzen du gehien, autoak, autobusak ala trenak? Zergatik?*
- *Kutsadura horrek ondorio larriak izan ditzake, baina... uste duzu, gainera, Lurreko izaki bizidunei eragin diezaiekeela? Nola eragiten die gizakiei? Eta landareei?*
- *Gure kale eta errepideetatik askotariko ibilgailuak dabiltza (autoak, motoak, autobusak, kamioiak, trakto-*

reak...). Uste duzu trafikoaren zaratak eragotzi egiten diela errepideetatik hurbil bizi diren pertsoneri eta animaliei? Zure ustez, nola eragiten die trafikoaren zaratak gizakiei? Eta zuri, bereziki?

- *Ibilgailuak planetarako eta gure osasunerako hain kaltegarriak baldin badira... bururatzen al zaizu automobilaren erabilera murrizteko aholkuren bat?*

Talde txikietan, idatz ezazue automobilaren erabilera — eta, ondorioz, haiek sortutako kutsadura— murrizteko aholku eta ekintzen zerrenda bat.

Eranskinak:

--

EKINTZA PLANA

2. Garraioa: airea eta zarata

Emitza:

Automobilaren erabilera gutxitzeko aholkuen zerrenda. Hezitzaileak zerrenda osa dezake ideiaren batzuk gehituta:

- Ahal duzun guztietan, etor zaitez oinez, edo bizikletaz, edo garraio publikoan.
- Eros ezazu zeure auzoan ahal duzun guztietan.

- Eskolatik urrun bizi bazara, parteka ezazu autoa ikas-kideekin, edo erabil ezazu autobusa, edo tren, edo beste.

- Udan hondartzara zoazenean, zoaz autobusean, eta ez autoan.

Argibide eta baliabide gehiago:

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

3. Egin dezagun txango bat

Izenburua:

Egin dezagun txango bat

- Eskola curriculumeko arloak: Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezaguera.
- Agenda 21eko gaiak: Garraioa eta mugikortasuna - Ekonomia.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

- ✓ Garraio publikoa erabiliz txango bat prestatzea.
- ✓ Ibilbide aurreikuspen bat egitea, alderdi logistiko eta ekonomikoak kontuan hartuta.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Gure zereginak egiteko edota gure beharrianak asetzeko, egunetik egunera gero eta distantzia luzeagoa egiteko prest gaude. Hala ere, ez dugu beti kalkulatu zer kostu sortzen dizkiguten joan-etorri horiek ekonomia-

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Hezitzaileak zer toki bisitatuko dugun jakinaraziko du. Taldeak eratuko ditugu (talde bakoitzak bere izena eta kapitaina izango du). Talde bakoitzak aurkitu beharko du nola iritsi toki horretara garraio publikoan, eta aurkitu dituzten aukerei buruzko iruzkina egingo dute. Puntu bat emango diogu talderik lasterrenari, eta puntu

ren, ingurumenaren eta denboraren aldetik.

Jarduera honetan, gure joan-etorrien kostu nabarmenen azterketa integrala proposatzen da.

erdi beste aukeraren bat proposatu duten taldeei.

Hona hemen orientatzeko galdera batzuk:

- *Zer garraio publiko dago bisitatu nahi dugun tokira iristeko?*
- *Inoiz erabili duzue? Zertarako?*

EKINTZA PLANA

3. Egin dezagun txango bat

Nola egin:

Hezitzaileak puntu erdi emango die garraio publiko hori noizbait erabili duen kideren bat duten taldeei.

Hurrengo urratsean, taldeek ibilbidearen prezioa zein den jakitea lortu behar dute. Ibilbidea egiteko modu merkeena aurkezten duten taldeek puntu bat jasoko dute.

- *Prezioa egokia edo garestia iruditzen zaizue?*

Talde bakoitzak minutu batzuek eztabaidatuko du, eta azalduko du zer arazo sor daitezkeen (kostu ekonomikoa, atmosfera kutsatzea, distantzia, ordutegiak, se-

gurtasuna...). Hezitzaileak puntu erdi emango die arazo nagusiak identifikatzen dituzten taldeei.

Talde bakoitzak plano edo mapa bat izango du, ibilbidea hor zehazteko; eta paper bat, beharrezko gauzen (botika ontzia, baloia...) zerrenda egiteko. Era berean, puntu erdi jasoko dute zerrenda on bat prestatzen duten taldeek.

Zenbaketa egingo da, eta txalo egingo zaio txangoaren planifikazio hoberena egin duen taldeari.

Eranskinak:

--

Emitza:

Txangoa planifikatzea.

Argibide eta baliabide gehiago:

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

4. Autoa partekatzea (car sharing)

Izenburua:

Autoa partekatzea (car sharing)

- Eskola curriculumeko arloak: Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezaguera.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria - Ekonomia.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Egokitzapena eta malgutasuna.

Helburuak:

- ✓ Autoa partekatzeko zerbitzu bat kudeatzen ikastea.
- ✓ Garraio kolektibo eta partekatuaren abantailak ezagutzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Aspaldiko urteotan, eztabaidagai da autoa pertsona bakarrarentzat erabiltzearen jasangarritasuna. Eztabaida horren emaitza gisa, badira autoa partekatzeko jardunbide on batzuk, hala nola bi lagun baino gehiago

daramatzaten ibilgailuentzat gordetako erreiak, bide sarietako deskontuak, eta helmuga bera edo bateragarria duten autoen erabiltzaileek autoa partekatzea bideratzen duten webguneak.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Ikasleek bakoitzak eskolara iristeko egiten duen bidea besteenarekin konparatu behar dute. Beharbada, bide zati batzuk berdina izango dituzte.

Hezitzaileak autoa partekatzearen kontzeptua azalduko die, eta ikasleek autoa partekatzeko sistema bat sortu beharko dute.

Lehenengo urratsa taldekatzea izango da: egiten duten ibilbidearen arabera, taldeak egingo dituzte (ibilbidearen % 50 baino gehiago berdina duten ikasleak talde berean elkartuta).

Txantilo batean (eranskinean doa), talde bakoitzak argibide batzuk zehaztuko ditu: ea nork duen autoa, ea nork bidaiatu nahi duen lagunduta, eta abar.

EKINTZA PLANA

4. Autoa partekatzea (car sharing)

Nola egin:

Joan-etorriak egiten dituzten autoak eta pertsonak zehaztutakoan, prezioa adostu behar dugu. Izan ere, autoa eskaintzen duenak gastu batzuk ditu erregaiari eta autoaren higadurari. Bestela, astero ibilgailua txandakatzeko sistema bat ezarri beharko dute.

Hezitzaileak ikasleei gogoraraziko die ezen, ariketa hau egiteko, ibilgailuko eserleku eta bidaiari kopuruari buruzko arauak bete behar direla, eta nahitaezkoa dela hurrak lotzeko sistemak erabiltzea.

Dena prest izandakoan, ondorio batzuk atera ditzakegu:

- *Gutako zenbatek aprobetxatu ahal izango du autoa partekatzeko aukera?*
- *Joan-etorriak nola egin nahiago dituzu, bakarrik ala lagunduta?*
- *Uste duzu dirua, erregaia eta CO2 isurpenak aurrez-ten direla autoa partekatuz?*
- *Zer abantaila eta desabantaila ikusten dizkiozu autoa partekatzeari?*

Eranskinak:

- *Argibideen txantiloia.*

EKINTZA PLANA

4. Autoa partekatzea (car sharing)

Emitza:

Autoa partekatzeko proiektua.

Azken ondorioak:

- Partekatzearen garrantzia, talde baliotzat.
- Autoan bidaiatzea, batez ere neguan, eroso izan daiteke, eta erabilera partekatuak jasangarri egin dezake gainera.
- Autoa partekatzearen jasagarritasuna diru aurrez-

penari eta energia aurrezpenari lotzen zaie.

- Eragozpen nagusia, beharbada, joan-etorrietarako denbora luzeagoa behar izatea izango da, eta ordutegi eta ibilbide jakin batzuk bete behar izatea.
- Abantaila handi bat da adiskideekin denbora gehiago parteka dezakegula.

Argibide eta baliabide gehiago:

- *Autoa partekatzea.*
- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

5. Eskolara iristea

Izenburua:

Eskolara iristea

- Eskola curriculumeko arloak: Matematika.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Egokitzapena eta malgutasuna.

Helburuak:

- ✓ Eskolara etortzeko beste bide bat probatzea.
- ✓ Ekonomia, ingurumen eta segurtasun arloetako adierazleak aztertzea, beren ohiko ibilbidea eta aukeratutako ordezkoko bidea alderatuta.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Diagnostikoaren ondorioetatik eta eskolara iristeko ordezkoko bideari buruzko ikerketaren jardueratik abiatuta, hezitzaileak ekintza plan hau proposatuko du: egun

batez, eskolara iristeko ordezkoko ibilbide bat egitea edo ohikoaz besteko garraiobide bat erabiltzea.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Ikasle bakoitzak, eskolara etortzeko ohiturak alde batera utzita, ordezkoko ibilbide bat eta bestelako garraiobide bat aukeratu behar ditu (oinez etortzeko ohitura baldin badu, heldu batek lagunduta bizikletaz etortzea proba dezake, adibidez). Beharbada, seguruago ibiltzeko, ohiko ibilbidea aldatu beharko du.

Ikasgelan esperientziari buruzko iruzkina egingo da:

- *Zer iruditu zaizu garraiobide berria?*
- *Nola sentitu zara?*
- *Zer garraiobide nahiago duzu, ohikoa ala ordezkoa?*

EKINTZA PLANA

5. Eskolara iristea

Nola egin:

Eta ohiko garraiobidearen hainbat adierazle kalkulatu dira (ekonomikoak, isurpen kutsatzaileak, ordutegiak, eta abar), ordezkorekin konparatuta.

Kalkulatutako datuetatik abiatuta, ikasle bakoitzak gai hauei buruzko gogoeta egin beharko du:

- *Uste duzu zure ibilbideak eta garraiobideak laguntzen dutela ingurumen eta segurtasun arazoak konpontzen?*
- *Edo, aitzitik, arazoak areagotzen al dituzte?*

Hezitzaileak ikasle bakoitzak landutako datuak gehitu ditzake, eta laburpen kartelak egitea proposatu.

Eranskinak:

--

Emaitza:

Garraiobideen eta ibilbideen konparazioak jasotzen dituzten kartelak.

Argibide eta baliabide gehiago:

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

6. Etxetik eskolara, zarata dut lagun

Izenburua:

Etxetik eskolara, zarata dut lagun

- Eskola curriculumeko arloak: Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezaguera.
- Agenda 21eko gaiak: Hots kutsadura.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Arreta - Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

- ✓ Giro zaratatsuetan arretari eustearen zailtasuna esperimintatzea.
- ✓ Mugikortasuneko egoeretan arretaz jokatzeko garrantzitsua dela balioestea.
- ✓ Hots kutsadura txikiagotzeko neurriak proposatzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Hots kutsaduraren ondorioak hauek dira, besteak beste:
- Ondorio fisiologikoak (entzumena hondatzea).

- Ondorio psikologikoak (suminkortasuna, komunikazioko interferentziak, eta atsedeen hartzeko nahiz lo hartzeko arazoak).

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Hezitzaileak ikasleei esperimentu bat proposatuko die: agindu erraz batzuei jarraitzea, interferentziak (zaratak) dituzten bitartean.

Ikasleek biribilean ibili beharko dute, guztiek alde bererantz, hezitzaileak emandako estimuluak kasu eginda,

eta bi laguntzailek gogaitze lanak egiten dituztela. Laguntzaile horiek ikasleen artean aukeratuko dira, jokia hasi baino lehen, eta zaratak egin beharko dituzte ahotsa erabili gabe: Estimuluak hotsak izango dira, gorputzarekin eginak (oinak, eskuak), gauzekin (maki-latxoak, bolalumak) edo bururatzen zaien edozerekin,

EKINTZA PLANA

6. Etxetik eskolara, zarata dut lagun

Nola egin:

baina inoiz ere ahotsa erabili gabe. Hezitzailearen aginduei kasu egiten saiatzen ari diren parte hartzaileak gogaitzeko egin behar dira zaratak.

Lehenengo fasean, hezitzaileak aginduak ematen ditu, eta hotsik ez dute egiten ez berak, ez laguntzaileek.

Bigarren fasean, laguntzaileetako batek bakarrik egingo du hotsa.

Hirugarren fasean, bi laguntzaileek egingo dute hotsa. Gero, berriz lehen fasera itzuli eta isilik geratuko dira. Hezitzaileak markatuko du fase aldaketa, keinu batekin.

Hezitzaileak agindu hauek emango ditu, ausaz, ahots normalarekin:

1. «Aldatu noranzkoa»: eskuinerantz biratzen ari baziren, ezkerrerantz egin beharko dute, eta alderantziz.
2. «Jauzi»: jauzi bat egin, eta jarraitu oinez.
3. «Adi»: hiru pauso oso poliki egin behar dituzte.

Hezitzaileak hasieran probatzeko tarte bat egingo du, esperimendatzeko eta aginduetara ohitzeko.

Era berean, gezurrezko aginduak eman daitezke: konparazio batera, hezitzaileak oihu egin dezake «pilota», eta ikusi ea parte hartzaileak nahasten dituen.

Hezitzaileak egoki deritzonean, esperimendua bukatutzat emango du. Ikasleak eseri egingo dira, eta galdera hauek egingo dizkie:

- *Zer zailtasun izan dituzue?*
- *Noiz izan zaizue errazena aginduei jarraitzea?*
- *Nahasi al zarete inoiz? Zenbat aldiz?*
- *Aginduak ondo entzuten ziren?*
- *Nola lot dezakegu esperientzia hori kalean ibiltzearekin?*
- *Batez ere zer elementuri egin behar diegu kasu, kalean gabiltzanean?*

EKINTZA PLANA

6. Etxetik eskolara, zarata dut lagun

Nola egin:

MUGIKORTASUN JASANGARRIA:

Hezitzaileak azalduko du zarata kutsadura dela, hots kutsadura.

- Zer ondorio ditu zaratak haurrengan, zuen ustez?
- Uste duzue ona dela zuen osasunerako?
- Zer neurri har ditzakegu, zarata mailak txikiagotzeko?

Egin neurrien zerrenda bat, adibidez:

- Hurbileko dendetara erosketak egitera joateko, autorik ez erabili.
- Asfalto isilagoak erabili.
- Etxean eta dendetan musikaren eta telebistaren bolu-mena jaitsi.
- Isilago hitz egin, kalean garrasirik ez egin.
- Hirian klaxona ez jotzen saiatu.

Eranskinak:

- *1. jarduera: Zer nahaspila, hau zarata! – Honetan ere... seguru: Natura, gizarte eta kultur ingurunearen ezaguerako jarduerak.*

Eraitza:

Zarata mailak txikiagotzeko har ditzakegun neurrien zerrenda.

Eta azken ondorioak:

- Gure hirietako kaleak autoek, motorrek, autobusek eta abarrek hartu dituzte.
- Oinezkoek, joan-etorrietan, etengabeko zaratarekin

bizi behar izaten dute.

- Neurritz gainera zarata kaltegarria da osasunerako. Gainera, etengabe arreta galarazten du, eta horrek jokabide arriskutsuak sor ditzake.
- Hiri lasaiagoak eskatzen ditugu, eta oinezkoentzako gunehiago.

Argibide eta baliabide gehiago:

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

7. Eguraldia eta gu

Izenburua:

Eguraldia eta gu

- Eskola curriculumeko arloak: Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezaguera.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria - Eskola eta herria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

- ✓ Klima aldaketaren eta horrek gure eguneroko portaeretan dituen ondorioen gainean gogoeta egitea.
- ✓ Bideko jokabideak eguraldiari egokitzearen beharraz jabetzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Klima aldaketa gertatzen ari da dagoeneko, eta poloe-tako izotza urtzea ez da haren eragin bakarra: egune-roko bizitzan ere eragiten digu.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Hezitzaileak ideia jasa bat abiatuko du, galdera hau eginez: Zer bururatzen zaizue, «Klima aldaketa» esaten badut?

Hezitzaileak klima aldaketa zer den azalduko du, eta ondoren galdera hauek egingo ditu:

- *Uste duzue klima aldaketak eragiten digula? Baiezkoan, nola?*

- *Muturreko eguraldiaren zer egoera bizi izan dituzue? Zer gertatu zen? Nola sentitu zineten? Nola eragin zion zuen egunari?*
- *Zer egin dezakegu, klima aldaketa saihesteko?*

EKINTZA PLANA

7. Eguraldia eta gu

Nola egin:

Talde txikietan, ikasleek bi zerrenda egingo dituzte: batean, klima aldaketa epe luzean aztertuko da, klima aldaketa saihesteko edo haren ondorioak txikiagotzeko ekintzak zehaztuta; eta bestean, muturreko eguraldia edo ohikoak ez diren fenomeno meteorologikoak gertatuz gero hartu beharreko prebentzio neurriak jasoko dira. Zerrendak egindakoan, hezitzaileak berriz antolatuko ditu ikasleak lantaldean.

Talde bakoitzak eguraldia eta haren elementuak (brisa, ekaitza, urakana, elurra, euria, lainoa, eguzkia eta abar) adierazten dituzten hainbat irudi izango ditu. (Ikus eranskina.)

Talde bakoitzak, irudikatutako fenomeno atmosferikoa izendatzeaz gainera, beren eguneroko jardueretan nola eragiten dieten azalduko du.

- *Nola janzten gara?*
- *Zer jarduera egin ditzakegu edo ez ditzakegu egin?*

Adibidez: eguzkia denean, hondartzara joaten gara.

- *Zer egiten dugu eguraldi hori egiten duenean? Adibidez: aterkia erabiltzen dugu, eguzkitako krema jartzen dugu, eta abar.*

Hezitzaileak ekarpen guztiak elkarri azal diezaioten animatuko ditu ikasleak, konpara ditzaten, eta klimak gure jokabideetan dituen eraginez eztabaida dezaten.

Orobat, eztabaidan, irudi bakoitzean, galdera hauek sartuko ditu:

- *Nola eragiten die gidariei? Adibidez: elurra denean, kateak jarri behar dituzte.*
- *Nola eragiten die oinezkoiei? Adibidez: euria baldin bada, ez dira kalean paseatzen ibiltzen.*

Taldeak gogoeta egingo du, eguneroko bizitzan fenomeno atmosferikoetara egokitu beharraz (bereziki, joan-etorrietan).

Eranskinak:

- *8. jarduera: Eguraldia eta gu – Honetan ere... seguru: Natura, gizarte eta kultur ingurunearen ezaguerako jarduerak.*

Emaitza:

Klima aldaketa saihesteko edo haren eraginak murrizteko ekintzen zerrenda.
Muturreko klima izanez gero kasu egin beharreko gomendio eta neurrien zerrenda.

Argibide eta baliabide gehiago:

- *Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.*

EKINTZA PLANA

8. Adituen lantegia

Adituen lantegian, 3 – 6 ordu eskainiko dizkiogu aditu bati, mugikortasun seguruaren gai batzuetan sakondu dezan. Aditu horiek udaltzainak izan daitezke, edo mu-

gikortasuneko monitoreak; saio praktiko eta atseginak egingo dituzte, honekin batera doazen programazioen antzekoak.



EBALUAZIOA

1. Kartelak eta horma-irudiak

Izenburua:

Kartelak eta horma-irudiak

- Eskola curriculumeko arloak: Arte Hezkuntza.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia - Arreta - Egokitzapena eta malgutasuna - Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

✓ Programazioaren eragina ebaluatzea.

Nola egin:

HEZITZAILEARENTZAKO SARRERAKO INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK:

Ebaluazio jarduera honetan sortutako kartelak hasierako diagnosi kartel eta zerrendekin konparatuko ditugu.

IKASLEENTZAKO JARDUERAK:

Ikasleek kartelak egingo dituzte, programazioan erabilitako marrazki, argazki, mapa eta datuak erabiliz.

Talde txikietan, kartelak eta horma-irudiak egingo dituzte:

- Eskolara etortzeko ibilgailu pribatuaren erabilera gutxitzeko proposamenak jasotzen dituen kartela.
- Oinezkoentzako gomendioak jasotzen dituen kartela,

bereziki eskolara sartu eta handik irteteari buruzkoak.

- Ibilgailu pribatuetako bidaiarientzako gomendioak jasotzen dituen kartela, bereziki haurrak atxikitzekeo sistemen erabilerako eta ibilgailura sartu eta handik irteteko gomendioak.
- Nolakoa litzatekeen haurren hiria.

EBALUAZIOA

1. Kartelak eta horma-irudiak

Eranskinak:

--

Emaitza:

Ekintzak eta jardunbide egokiak jasotzen dituzten kartelak eta horma-irudiak.

**Argibide eta
baliabide gehiago:**

- [Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.](#)

EBALUAZIOA

2. Trukea

Izenburua:

Trukea

- Eskola curriculumeko arloak: Hizkuntzak.
- Agenda 21eko gaiak: Garraio eta mugikortasun jasangarria.
- Mugikortasun segururako gaitasunak: Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia - Arreta - Egokitzapena eta malgutasuna - Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

✓ Programazioaren eragina ebaluatzea.

Nola egin:

Gomendatzen dizugu zure ikastaldearekin egin duzun lana trukatzeko eta zabaltzeko ekintzak egin ditzazula. Hona hemen zenbait ideia:

- Erakuts itzazue ikastetxean egindako kartel eta horma-irudiak.
- Jar zaitetz harremanetan ikastetxe bereko hirugarren

eta laugarren mailetakoko beste ikastaldeen irakasleekin, eta konpara itzazue ondorioak.

- Truka itzazu ondorioak ardatz bera egin duten beste eskoletako ikastaldeekin.
- Helaraz iezazkiozu ondorioak Udalari.
- Jakinaraz iezazkiezu ondorioak gurasoei.

Eranskinak:

--

Emaita:

Hezkuntza komunitateko eta udalerriko gainerako kideekin bilerak eta batzarrak egitea.

Argibide eta baliabide gehiago:

- [Trafiko Zuzendaritzaren Baliabideen Katalogoa.](#)

ERANSKINAK

Sentiberatzea

Hiru amaiera dituen ipuina

Txirularia eta automobilak (egilea: Gianni Rodari)

Bazen behin txirulari magiko bat. Istorio zaharra da, guztiek ezagutzen dute. Saguek erabat hartu omen zuten hiri bat. Eta gaztetxo batek, bere txirula sorgin-
duarekin, sagu guztiak ibaira itotzera eraman zituen. Alkateak, ordea, ez zion ordaindu nahi izan; beraz, gaztetxoak txirula jo zuen berriro, eta hiriko haur guz-
tiak eraman zituen.

Istorio hau ere txirulari bati buruzkoa da: beharbada txirulari bera izango da, edo beharbada ez.

Oraingoan, autoek erabat hartu duten hiri bat da. Autoak kaleetan, autoak espaloietan, autoak plazetan, autoak etxabeetan. Autoak bazter guztietan: kutxatxoak bezain txikiak, itsasontziak bezain luzeak, atoiarekin, karabanarekin. Baziren han automobilak, tranbiak, kamioiak, furgonetak. Hainbeste ziren, kostata mugitzen ziren, elkar jotzen zuten, beren txapa hondatzen zuten, kolpe-leungailua hausten zuten, motorrak erauzten zituzten. Eta hainbeste izatera iritsi ziren, dagoeneko ez zuten tokirik mugitzeko, eta geldirik egon behar izan zuten. Beraz, jendeak oinez ibili behar zuen. Ez zen erraza, baina. Izan ere, autoek hartuta zituzten toki

guztiak. Autoak inguratuz ibili behar zuen jendeak, autoen gainetik, autoen azpitik. Eta, goizetik gaueraino, hauxe entzuten zen:

—Ai!

Oinezko batek kolpea hartu zuen kapot baten kontra.

—Ai! Aiei!

Bi oinezkok elkar jo zuten, kamioi baten azpitik arrastaka zihoazela. Jendea, jakina, guztiz haserretu eta sumindu zen.

—Aski da!

—Zerbait egin behar da!

—Zergatik alkateak ez du horretan pentsatzen?

Alkateak protesta haiek entzuten zituen, eta purrustaka

jarduten zuen:

—Pentsatu, pentsatzen dut. Horretan pentsatzen dut gau eta egun. Bueltak eman dizkiot, baita Eguberri egun osoan ere. Kontua da ez zaidala ezer bururatzen. Ez dakit zer egin, zer esan, eta zer zuhaitzetatik zintzilikatutako dudan neure burua. Eta nire burua ez da besteena baino gogorragoa. Begira zein biguna den. Egun batean, Alkatetzara etorri zen gazte arraro bat. Arkume larruzko jaka bat zuen, abarkak oinetan, eta zinta erraldoi batez apaindutako kapela konikoa. Tira, gaita-jotzailea zirudien. Baina gaitarik gabeko gaita-jotzailea. Alkateak har zezala eskatu zuenean, udaltzainak erantzun zion, lehor:

Hiru amaiera dituen ipuina

—Utz ezazu bakean, ez du serenatak entzuteko gogorik.

—Baina ez dut gaita ekarri.

—Are okerrago. Gaitarik ere ez baldin baduzu, zergatik hartuko zaitu alkateak?

—Esaiozu badakidala nola libratu hiria automobiletatik.

—Nola? Nola? Aizu, ospa hemendik, hemen ez ditugu halako txantxak onartzen.

—Iragar iezaiozu alkateari nire bisita, ziurtatzen dizut ez zarela damutuko...

Hainbestetan errepikatu zuen erregua, azkenean udaltzainak alkatearengana lagundu behar izan zuen.

—Egun on, alkate jauna.

—Bai, erraza da «egun on» esatea. Niretzat, egun ona bat bakarrik izango da...

—...hiria automobiletatik libratzen den eguna? Nik badakit nola.

—Zuk? Eta nork irakatsi dizu? Ahuntz batek?

—Berdin dio nork irakatsi didan. Ez duzu ezer galduko saiatzen uzten badidazu. Eta bihar baino lehen zerbait hitzematzen badidazu, jadanik ez duzu buruhauste gehiagorik izango.

—Ea, bada, zer hitzeman behar dizut?

—Bihartik aurrera haurrak beti jolastu ahal izango direla Plaza Nagusian, eta beti izango dituztela karruselak, zabuak, txirristak, pilotak eta kometak.

—Plaza Nagusian?

—Plaza Nagusian.

—Eta ez duzu besterik nahi?

—Besterik ez.

—Orduan, eman bostekoa. Hitzemanda.

—Noiz hasiko zara?

—Berehala, alkate jauna.

—Tira, ez galdu minuturik...

Gazte arraroak ez zuen segundorik ere galdu. Eskua patrikan sartu, eta txirula txiki bat atera zuen, masus-tondo adar batetik landua. Eta gutxi balitz bezala, han, alkatearen bulegoan, melodia bitxi bat jotzen hasi zen. Eta hura jotzen irten zen alkatetzatik, plaza zeharkatu zuen, ibairantz jo zuen...

Geroxeago...

—Begira! Zer egiten du auto hark? Bakarrik jarri da martxan!

—Eta hura ere bai!

—E! Baina hura nire autoa da! Nor ari zait autoa lapurtzen? Heldu lapurrari! Heldu lapurrari!

—Baina ez al duzu ikusten ez dela lapurrik? Automobil guztiak jarri dira martxan...

—Abiada hartzen ari dira... Lasterka doaz...

—Nora ote doaz?

—Nire autoa! Gelditu, gelditu! Nire autoa nahi dut!

Autoak lasterka zihoazen hiriko toki guztietatik, egun-

doko burrunba ateratzen zutelarik motorrekin, ihes hodiekin, klaxonekin, sirenekin... Lasterka zihoazen, eurak bakarrik.

Baina adi geratu izan balira, burrunba haren azpian, hura baino are indartsuago eta iraunkorrago, txirularen txistu sotila eta haren melodia bitxi, bitxia...

Lehenengo amaiera

Automobilak lasterka zihozten ibairantz.

Txirularia, inoiz ere jotzeari utzi gabe, haien zain zegoen zubian. Lehenengo autoa heldu zenean —kasualitatez, hain zuzen ere alkatearena—, pixka bat aldatu zuen melodia, nota altuago bat gehituta. Seinale bat balitz bezala, zubia behera etorri zen, automobila ibaian murgildu zen, eta korronteak urrutira eramane zuen. Eta bigarrena erori zen, bai eta hirugarrena ere, eta automobil guztiak bata bestearen atzetik, binaka, multzoka, urperatu egiten ziren, motorraren azken orro batekin, klaxonaren hil-arnasestuekin. Eta korronteak eramane zituen.

Haurrak, garaitzaile, jaisten ari ziren, beren pilotekin, automobilez hustu berri ziren kaleetan zehar. Neskatoek, panpinak haur kotxeetan jarrita, trizikloak eta bizikletak

ahazmenetik atera zituzten, eta inudeak irribarrez pasatzen ziren.

Hala ere, jendeak eskuak burura eramane zituen, telefonoz suhiltzaileei deitzen zien, udaltzainei protesta egiten zien.

—Eta ero horri egiten uzten diote? Baina, baina... geldiaraz ezazue, alajaina, isilaraz ezazue txirulari madarikatu hori.

—Murgil ezazue bera ibaian, txirula eta guzti...

—Alkatea ere erotu egin da! Gure auto eder guztiak suntsiaraztea ere!

—Hain garestiak izanik!

—Gurina hain garestia izanik!

—Behera alkatea! Dimisioa!

—Behera txirularia!

—Nire autoa itzul diezadatela!

Ausartenak txirulariaren kontra jo zuten, baina hura ukitu baino lehen gelditu ziren. Airean, ikusezin, bazen horma moduko bat, txirularia babesten zuena. Ausartenek alferrik kolpatzen zuten horma hura eskuekin eta oinekin. Txirulariak azken autoa ibaian murgildu arte itxaron zuen, gero bera ere murgildu zen, ibaia beste ertzeraino joan zen igeri, burua makurtu zuen, buelta eman zuen eta basoan desagertu zen.

Bigarren amaiera

Automobilak lasterka joan ziren ibairantz, eta bata bestearen atzetik jauzi egin zuten, klaxonaren azken auhe-narekin. Murgildu zen azkena alkatearen autoa izan zen. Ordurako, Plaza Nagusia jolasean zebiltzan hurrez beteta zegoen jadanik, eta haien jai giroko oihuek ezkutatu egiten zituzten beren autoak korronteak eramanda urrun desagertzen ikusi berri zituzten herritarren aieneak.

Azkenean, txirulariak jotzeari utzi zion, begiak altxatu zituen, eta orduan baizik ez zuen ikusi mehatxuka zetorkion jendetza, alkatea buru zela.

—Pozik al zara, alkate jauna?

—Oraintxe jakinaraziko dizut pozik izatea zer den! Ondo iruditzen al zaizu egin duzuna? Ez al dakizu zenbat lan eta diru kostatzen den automobil bat? Modu ederra, hiria libratzeko...

—Baina nik... baina zuk...

—Zer duzu zuk esateko? Orain, zure bizitzaren gaine-rakoa espetxean pasatu nahi ez baduzu, heldu txirulari eta ateraraz itzazu automobilak ibaitik. Eta kontuan izan ezazu denak nahi ditudala, lehendabizikotik hasita azke-nejoraino.

—Ondo esana! Ondo! Gora alkate jauna!

Txirulariak agindua bete zuen. Tresna magikoaren soinuari jarraituz, automobilak ibai ertzera itzuli ziren, kaleetan eta plazetan barrena lasterka joan ziren, lehen zeuden lekue-taraino. Handik bota zituzten haurrak, pilotak, trizikloak, inudeak. Dena lehen bezala izatera itzuli zen. Txirularia as-tiro aldendu zen, tristuraz beterik, eta sekula ez zuen inork haren berri jakin.

Hirugarren amaiera

Automobilak lasterka, lasterka zihoazen... Ibaierantz, Hame-lingo saguak bezala? Ezta hurrik eman ere! Lasterka, las-terka zihoazen... Eta, halako batean, bat ere ez zen gelditu hirian, bat ere ez Plaza Nagusian, hutsik kaleak, libre pasea-lekuak, hutsik plazatxoak. Nora joan ziren?

Zorroztu belarriak, eta entzungo diezue. Orain lurpetik da-biltza. Gazte arraro horrek, bere txirula magikoarekin, lur-peko kaleak zulatu ditu kaleen azpian, eta plazak plazen azpian. Handik dabilta autoak. Beren jabea sar dadin gel-ditzen dira, eta berriz ekiten diote beren ibiliari. Orain, guz-tientzako tokia dago. Lurpean, automobilentzat. Gainean, gobernuaz, Ligaz eta Ilargiaz hitz eginez paseatu nahi duten

herritarrentzat, eta jolastu nahi duten haurrentzat.

—Ze leloa —oihu egiten zuen alkateak, guztiz suharki—, ze leloa izan naizen lehenago bururatu ez zaidalako!

Gainera, txirulariari monumentua egin zioten hiri hartan. Ez, bi. Bata, Plaza Nagusian; eta bestea, behean, galerietan ze-har nekaezin lasterka dabilta autoen artean.

ERANSKINAK

Diagnostikoa

Elkarrizketaren gidoia

<u>Data:</u>	<u>Nire izena:</u>
Elkarrizketa honi nik erantzuten diot, eta gainera beste hauek ere bai: <ul style="list-style-type: none">••••	Zure ustez zein da eskolara etortzeko garraioberik erabiliena?
Bakarrik etortzen al zara eskolara goizero? Bakarrik etortzen ez bazara, nork laguntzen dizu?	Zure ustez, zergatik da garraiober hori erabiliena?
Ba alda eskolara iristen den garraiober publikorik? Zein?	Zer garraioberetan etorri nahiko zenuke eskolara, aukeratu ahal izango bazenu?
Ba al da eskola garraiorik zure etxetik eskolara?	Besterik esan nahi duzu?
Zer garraioberetan etortzen zara eskolara?	

ERANSKINAK

Diagnostikoa

Datu taula

Bete ezazu taula bat, emaitzekin. Emaitza horiek oso ezberdinak izango dira eskola batetik bestera eta ingurune batetik bestera (hiria, herri handia, landa eremua).

Garraioidea	Erabiltzen duten ikasle kopurua	Garraioidearen abantailak	Garraioidearen oztopoak
Oinez			
Autoa			
Eskolako autobusa			
Autobus publikoa			
Bizikleta			
Motoa			
Metroa			
Trena			
Beste bat			

Taularen datuak eta elkarrizketetako erantzunak aintzat hartuta, ondorio hauek sor ditzakegu:

*Ikasle gehienak, eskolara,-z/-ean etortzen dira.
Hala ere, badira-z/-ean etortzen diren batzuk.*

Adieraz itzazu garraioide guztiak eta bakoitza erabiltzen duten ikasle kopurua. Egin iruzkina, ea haien ustez zergatik diren garraioide erabilienak.

Era berean, ikusi dugu badirela beste garraioide batzuk eskolara etortzeko, baina gure ikastaldean inork ez dituela erabiltzen.

Zein dira? Adibidez: XX zenbakiko autobusa, patinetea, eta abar.

Gainera, badira beste garraioide batzuk, eskolatik hurbil igarotzen direnak, nahiz eta bide zati txiki bat oinez egin beharko litzatekeen:

Zein dira?

ERANSKINAK

Diagnostikoa

Eskolako sarrera behatzea

<u>Data:</u>	<u>Ikasturtea:</u>
Ikasleak:	
JASANGARRITASUNA	MUGIKORTASUNA
<p>Egin behaketa, eta erantzun ea zenbat haur heltzen diren autoan ikastetxera. Ahal baduzu, eman zenbaki zehatza.</p> <p><input type="checkbox"/> Ia guztiak: __</p> <p><input type="checkbox"/> Asko: __</p> <p><input type="checkbox"/> Gutxi: __</p> <p><input type="checkbox"/> Oso gutxi: __</p>	<p>Behatu zer erabilera ematen zaion eskolako espaloitari eta ateari. Idatzi ea inork ekintza hauek egiten dituen, eta zenbat aldiz:</p> <p><input type="checkbox"/> Espaloitik lasterka ibili: __</p> <p><input type="checkbox"/> Espaloian eseri: __</p> <p><input type="checkbox"/> Heldu bati eskutik helduta joan: __</p> <p><input type="checkbox"/> Espalaira igotako autoak: __</p>
<p>Autoan iristen direnetatik, zenbat haur jaisten dira auto bakoitzetik?</p> <p><input type="checkbox"/> Haur bat auto bakoitzetik: __</p> <p><input type="checkbox"/> Bi haur auto bakoitzetik: __</p> <p><input type="checkbox"/> Hiru haur baino gehiago auto bakoitzetik:</p>	<p>Autoan iristen diren haurrak nola jaisten dira autotik?</p> <p><input type="checkbox"/> Espaloiko aldetik: __</p> <p><input type="checkbox"/> Errepideko aldetik: __</p> <p><input type="checkbox"/> Heldu batek lagunduta: __</p>
<p>Zer jokabide dute autoek?</p> <p><input type="checkbox"/> Bigarren ilaran gelditzen dira: __</p> <p><input type="checkbox"/> Ondo aparkatzen dute: __</p> <p><input type="checkbox"/> Klaxona jotzen dute: __</p> <p><input type="checkbox"/> Ilara egiten dute: __</p>	<p>Beste ohar batzuk:</p>


ERANSKINAK

Ekintza Plana

Garraioaren gurpila

Garraio bideen ezaugarriak eta adjektiboak

GELDOA		
	DESEROSOA	
OSO KUTSATZAILEA		
		SEGURUA
BANAKAKOA		
		MERKEA
	ISILA	



ERANSKINAK

Ekintza Plana

Argibideen txantiloia.

Idatzi:

Nork du ibilgailua?

Nork bidaiatu nahi du besteren batekin?

Bakarrik etortzen zara, ala anai-arrebekin?

Zenbat toki libre ditu ibilgailuak?

Zenbat haurrek behar dute atxikitzeko aulkia edo goragailua?

MATERIAL HAU EGIN DUTE:

PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Tráfico Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

formaccio



SIGNOS DE IDENTIDAD
Consultores de Imagen & Comunicación

2014